



Lasarte-Oriako  
Musika eskola  
Gipuzkoako  
Euskal Kantu  
Txapelketan /4

Reziklate lehiaketa eta erakusketan edozein izan daiteke epai mahaiako. Andatza plazako informazio bulegoan ematen dute horren berri.

## Birziklapena arte-lan

Reziklate09 lehiaketako edukiontzia Andatza plazan izango dira ikusgai azaroaren 17ra bitartean

Birziklapena eta artea bateratzen dituen, *Reziklate09* erakusketara iritsi da Lasarte-Oriako Andatza plazara. San Markoseko Mankomunitateak antolatutako lehiaketan parte hartu duten 13 edukiontzi artistiko ikusteko aukera dago, eta hauen artean informazioa karpa bat ere jarri da. •

UDALBATZARRA/ 3

**Gobernu hitzarmenaren etetearen ondorioak besteak beste udalbatzarrean**

GIZARTEA/ 5

**Bilgune feministak eraso sexisten aurreko prokoloa aurkeztu du**

KIROLA/ 6

**Ostadarreko Infantil txikien taldekoak txapeldunen fasean daude**

## Uholdeen arriskutik at

Eusko Jaurlaritzak uholdeen arrisku egoera bukatutzat eman zuen, asteazkenean. Asteazkenean, lasarteoriarrak Oria ibaia gainezka noiz egingo zuen zain egon ziren. Baina ez zen ibaia izan Lasarte-Orian, astearte gauean, arazoak sortu zituen. Etengabeko euri jasak estolderiak gainezka egitea ekarri zuen eta Donostia bideko N-I errepiderako lotura, hau da, tunela urez bete zen norabide hori itxia. Asteazken goizean, garbiketen txanda izan zen. •



Química Kimika Lengua  
Químicas Fisika K  
tabilitatea Nom  
ka Fisika M  
eniería Ler  
engua K  
litatea N  
ka Fisika  
ontabili  
engua k  
tematika  
k Estatist  
imicas Kim  
mpresariales N  
a Lengua Kontab.  
engua Kontabilitate.  
nua Kontabilitatea Nom.

Matika Biologia Psikologi  
tatistika Biologia  
mpresariales N  
minak Estat  
ieria Fisik  
sika Esta  
Psicolog  
ria Biok  
natika l  
ka Esta  
Biografía  
mpresaria  
a Matem  
as FisikaMate  
'sicologia Mater  
Kontabilitatea Nom  
geniería Matemáticas In

### Zitek zientzi eskola

- ✓ Eskola-laguntza
- ✓ Zientziak eta hizkuntzak
- ✓ LH, DBH, Batxilerra
- ✓ Informatika
- ✓ IT Txartela 14 urteik aurrera

Goikale 12 behea  
Tel.: 943 363106  
20160 Lasarte-Oria

## SUGATE SUKALDEAK

- Gremioen koordinazioa
- Ordenadore bidezko diseinua
- Konpromisorik gabeko aurrekontuak
- Horma- armairuak
- Marka guztietako etxetresna elektrikoak

Pintore kalea 5 • Tel./Faxa: 943 36147 • LASARTE-ORIA  
[www.sugate.net](http://www.sugate.net)

12  
GARANTIA  
7 GARANTIA  
vegasas  
FORMA

**Neure kabuz**



Ura

Azken egunetan ur-jario ederra izan dugu gure bazterretan. Oria ibaia ere hor izan dugu sustoa emateko prest. Beste zenbait gauzen artean, niri duela hilabete batzuk urari buruz entzun nituen datuak etorri zaizkit pentsamendura. Zenbat litro ur use duzu gastatzen dituzula zuk egunero? Bai, bota ... Ba, batez beste, ia 130 litro gastatzen dugu pertsona bakoitzeko eta egunero Euskal Herrian. Pentsatzen al zenuen hainbeste litro erabiltzen zenituela? Nik ez behintzat. Eta badirudi "hoberena" 100 litroren inguruan dabilen bitartean (pertsona eta eguneko), Madril eta Andaluzia 170 litrotik gora dabilzala. Harrigarria, ezta?

Ekonomian dagoen paradoxarik ezagunenetako batek urarekin erlazioa du. Uraren eta diamanteen (edo balioaren) paradoxa izenez ezagutzen da. Adam Smith ekonomiaren sortzaileak 1776an "Nazioen oparotasuna" bere obra nagusian ondorengoa galdetzen zion bere buruari: nola da posible ura hain beharrezkoa izanik merkea izatea eta diamanteak nahitaezkoak izan gabe hain garestiak izatea? Urte dexente pasa ziren horri erantzun txukuna eman arte. Ekonomista batek esango luke uraren prezioa txikia dela bere baliagarritasun marjinala txikia delako, eta diamanteen kasuan, alderantziz. Beste modu batera esanda, uraren prezioa txikia da erositako azken litroak ematen duen poztasun gehigarria txikia delako, hau da, lehenengo litroak oso garrantzitsuak direlako, baina azkenekoak ez hainbeste.

Beno, besterik ez ... egarri naiz eta iturrira noa.

**Ifaki Erasquin**

**Zorion-agurrak**



**Amaier**

Zorionak eta muxu pila bat. Aitaxo eta amatxoren partetik.



**Malen eta Arias**

Zori-zorionak zuen urtebetetzean. Muxuak!



**Maria Luisa**

Zorionak amona! Senarra, billobak eta seme-alaben partetik, muxuak!



**Belen**

Zorionak eta muxu handi bat, Joseba eta Eiderren partetik.



**Alaiia**

Zorionak zure lehenengo urtebetetzean guraso, izeba eta aiton-amonen partetik.



**Maribel**

Zorionak zure urtebetetzean! Zure guraso politikoen aldetik, Juan eta Ana.



**Fernando eta Agus**

Zorionak bio! Zuek ardo on bat bezala. Ondo pasa eta poteak zuen kontu.

**Guardiak**

**Ostirala, 13**

Urbistondo, San Frantzisko 1  
Tel.: 943 366567

**Larunbata, 14**

Orue, Jaizkibel plaza 2  
Tel.: 943 362652

**Igandea, 15**

Orue, Jaizkibel plaza 2  
Tel.: 943 362652

**Astelehena, 16**

Orue, Jaizkibel plaza 2  
Tel.: 943 362652

**Asteartea, 17**

De Miguel, Kale Nagusia 32  
Tel.: 943 371151

**Asteazkena, 18**

Rodriguez, K. Nagusia 42 atzea  
Tel.: 943 361774

**Osteguna, 19**

Gil, Kale Nagusia 24  
Tel.: 943 361529

**Telefonoak**

**Osasuna / Larrialdiak**

Osasun Zentroa ... 943 007960  
DYA ..... 943 464622  
Gurutze Gorria ... 943 363953  
Udalzainak ..... 943 362442  
Ertzaintza ..... 943 288888  
SOS Deiak ..... 112

**Udala**

Erregistroa ..... 943 376055  
Euskarako Zerbitzua 943 376184  
Kiroldegia ..... 943376182  
Kulturetxea ..... 943376181  
Bakezko epaitegia . 943371629  
Zerbitzu Sozialak . 943376179  
Zentro Zibikoa ... 943363958  
KIUB ..... 943361605  
Udal euskarategia ... 943361621  
Obrak eta zerbitzuak ..... 943 376180

**Azoka txikia**

**Eskaizta inmobiliarioak**

• Etxebizitza alokatzen da: 2 logela, sala eta jangela. Altzariekin dago eta berogailu zentrala du. Abala eskatzen da. Telf: 649 526 766.

• Pisia salgai Iruran. 3 gela, komuna, sukaldea eta egongela. Dena kanpoaldera ematen du eta eguzkitsua da. Berogailua eta armairu enpotratuak ditu. Harremanetarako telefonoa: 695 785 153.

• Apartamentua salgai Lasarte-Orian. Egoera onean dago. Toki lasaian eta berritu berria. Biko-tearentzat egokia. Harremanetarako telefonoa: 657 708 866.

**Salerosketak**

• Radio CD Pioneer saltzen da. Altabozak bandejan sartuta (barne) daude. Golf Serie III-entzat aproposa. Harremanetarako telefonoa: 653 732121

**Lan-eskaiztak**

• 14 urteko gaztetxo batentzako piano irakasle bat behar da. Harremanetarako telefonoa: 656 647 599

• Aisialdirako begiraleak behar dira, astean bitan, Donostian eskola batean euskarako klaseak emateko. Interesatua egonez gero, kurrikuluma honako helbidera bidali mldonostia@mondragonlingua.com

**Oharrak jartzeko:**

www.txintxarri.iragarkaliburak.com

txintxarri@txintxarri.info • Tel.: 943 366858 • Geltoki 4

• Pertsona baten bila gabiltza astean bi egunetan etxeko lanak egiteko. Harremanetarako telefonoa 635 745351 da. Arratsaldeetan deitu.

**Lan-eskariak**

• Emakume euskaldun eskaiztzen da gaixok edo adineko pertsonak zaintzeko. Urte askoko esperientzia du eta ordutegi zabalarekin. Ostiral arratsaldeak eta asteburuetan ez. Gauak egiteko ere prest, (30 euro gaua). Gainontzean prezio ekonomikoa. Harremanetarako telefonoa: 687 348 223.

• Ingeleseko magisteritzako 3. Mailako ikaslea naiz eta lehen hezkuntzako zein DBHko lehenengo zikloko ikasleei klaseak emateko prest nago (ingelese edo beste ikasgai batzuk). Interesatuak deitu zenbaki honetara, 943 37 28 74/ 635 720 017 Urtzi

• Pertsona bat eskaiztzen da etxeko garbiketa lanak egiteko eta pertsonak zaintzeko. Harremanetarako telefonoa: 680 785 548

• Pertsonak zaintzeko eskaiztzen naiz baita kristalak garbitzeko ere. Harremanetarako telefonoa: 638 096 411

**Bestelakoak**

• Ezkontza zein ekitaldietan abesteko kantari lirikoak eskaiztzen da. Interesatua bazaude maketa bat entzungai daukat. Harremanetarako zenbakia, 690 784 113.

<p><b>Jaiotzak</b></p> <p>Aimar Acuña Dominguez, azaroaren 9an.</p>	<p><b>Heriotzak</b></p> <p>Celestina Ruano Sebastian, azaroaren 10ean, 75 urte zituela. Antonio Monje Carrera, azaroaren 9an, 71 urte zituela.</p>
---	--

**Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak**



**Lasarte-Oriako Udala**  
**Euskarako Batzordea**



**GFAko Kultura eta Euskara Departamendua**



**EUSKO JAURLARITZA KULTURA SAILA**

Argitaratzailea: Itakun Kultur Elkarte, Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria, 943 366858, G-20407557 • Legezko gordailua: SS513/93 • ISSN: 1134-0053 • Inprimategia: Zeroa Multimedia, S.A. Aleak zenbakiko: 7.700 • Erredakzioa: txintxarri@ttakun.com • Publizitatea: publikizitatea@ttakun.com • Administrazioa eta banaketa: administrazioa@ttakun.com; ttakun@ttakun.com.

Txintxarriek ez du bere gain hartzen iritzi-artikuluetan eta irakurleek bidalitako gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

# Gobernu hitzarmena etetearen ondorioak

■ Marisa Zubiri Ingurumen, Merkataritza, Kontsumo eta Sanitate Batzordeko lehendakari berria

## TXINTXARRI

Atzo goizean, ohiko Udaltzarraren burutu zen Lasarte-Oriako Udalean.

Lehenik, aurreko ohiz kanpoko Udaltzarrean emendakinek gertatutako ekiditeko, Udaleko idazkariak emendakinek noiz eta nola aurkeztu behar diren azaldu ziren bertan zuden zinegotziei.

Ondoren, Udaltzari hasiera eman zitzaion 2009ko ekitaldian kredituak aldatzeko gaur arte bideratu diren dosierren berri ematearekin.

Oposizioak ez zuen eragozpenik izan eta hurrengo puntua uztartu zuten, alkatetzaren proposamenez, EUDELeK Euskal Autonomia Erkidegoko Entitate Lokaletarako Jardunbide Egoien eskuliburuari atxikimena.

Puntua onartu zen alderdi sozialista, EB eta LOHPren bozkekin. Zinegotzi ez adskribituak, EAJ eta H1 alderdiek abstentzioa bozkatu zuten.

Honen bidez, herritarrek administrazio publikoetan dituzten datu pertsonalak babestea eskatu dezaketek hemendik aurrera.

Era berean, Lasarte-Oriako Udalak hilerrian egin berri duen kolunbarioa Arautzeko ordenantza ere onartu izan



Marisa Zubiri, ezkerretik hasita lehenengoa, alderdi sozialistak Gobernu hitzarmenaren haustearen zergatia azaldu zuenean.

zen. Honetan, PSOE eta EBko aldeko bozka eta LOHP, zinegotzi ez adskribituen, EAJ eta H1 zinegotzien abstentzioa izan zuen.

Taxien 2010eko hiri barruko tarifa berrien bozkari dagokionez, EAJren bozka izan ezik, abstentzioa egin zutela, beste alderdi guztiak alde egin zuten.

### Kargu aldaketak

Bestalde, alderdi sozialista eta EB alderdien arteko Udaltzari hitzarmenaren etetea-

ren ostean, Ana Urchueguia alkateak egoera aztertu eta aldaketak egingo zituela aurreratu zuen.

Era honetara, alkatetzat Rikardo Ortega zinegotziaren bosgarren alkateorde izendapena eta Ingurumen, Merkataritza, Kontsumo eta Sanitate Batzordeko lehendakari Marisa Zubiri dugu Ingurumen, Merkataritza, Kontsumo eta Sanitate Batzordeko lehendakari berria eta bosgarren lehendakari ordearen lekua Jesus Zaballosek hartuko du.

Alkatetzat Euskarako batzordea Rikardoren ardurapean geratu behar dela ulertzen du eta horrela jakin arazi du zinegotzi ez adskribituen galdeari erantzunez.

### Konpostea eta errauskailua

Era berean, Udaleko talde sozialistak Usurbilek Atsokabarrereko eremuan jarri nahi duen konpostaje guneari buruzko

mozioa eta zinegotzi ez adskribituek Lasarte-Oriako Udalerriaren sortzen den hondakinak errauskailura ez eramateko mozioa aztertu ziren.

Bi puntu hauei buruz, TXINTXARRIko hurrengo zenbakian emango dugu berri.

Batzarreko azken puntua galderak eta eskaerak izan ziren.

Honetan, zinegotzi ez adskribituek auzoen arteko autobusa martxan noiz jarri behar zen galdetu zuten. Izan ere, aurrekontuetan horretarako diru kopuru bat baitago.

Ana Urchueguia alkateak Gipuzkoako Foru Aldundiarekin negoziaketak egin eta egoera ekonomikoagatik hau atzera bota dela azaldu zuen, "50.000 euro ordaindu behar genituen, orain 250.000. Beraz, oraingoz ez da martxan jarriko."

Bestalde, zinegotzi ez adskribituek, baita LOHPk ere, administrari bat kontratatzeko protokoloa ez jarraitzea leporatu eta azalpenak eskatu zizkieten alkatetzari.

Alkateak teknikariek hitz egin eta postu horietarako lan politzarik ez zegoela ziurtatu ostean, Udalaren funtzionamenduaren onerako berak hartutako erabakia izan zela adierazi zuen. •

## The... con mujeres Teatro Estudioren eskutik

Kutxak antolatuta, Donostiako Teatro Estudio taldeak *The...con mujeres* saioa eskainiko du gaur doan arratsaldeko 19:30ean Manuel Lekuona Kultur etxeko aretoan.

Ordu betean, lau lan laborikusteko aukera egongo da. Lehenengo hirurak Franca Ramek eta Dario Fok idatzitakoak dira eta, azkena, Alberto Mirallesena.

Antzezlan hauetan egokitu zaien bizimoduak zigortutako emakumeak agertzen dira.

Era berean, egoera horren aurka eman dezaketan erantzuna ere agertzen dute.

Antzerki lan hauek inguruan ditugun emakume askoren alderdi tristeak erakusten dute, era garbi eta argian.

### Teatro Estudio taldea

Hirurogeiko hamarkadatik laurogeiko lehen urteetara, taldeko kideek antzerki jarduerara oparatu burutu zuten.

Zaleak asebetetzaren alde eta antzerkia bere lurrean zabaltzaren alde hainbat urtetan lanean egon ostean,



taldeko kideek antzerkiaren eta artearen munduarekin zuten harremanari eutsi eta hala nola, irratiari edo zineari, lan egin zuten.

1984. urteaz geroztik, taldearen esanetan, Teatro Estudioren bigarren aroan murgildu dira.

Era honetara, azken urteetan, Donostiako Udako Uni-

bertsitatearekin lanean egon dira, Antzerki programaren barruan; Arcipreste de Hita lehiaketan ikuskizun onenaren, emakumezko aktore onenaren eta zuzendaritza onenaren sariak lortu zituzten edo Miami Antzerki Hispanoaren Nazioarteko Jaialdirako hautatuak izan ziren. •



Arg.: Errauskailuaren aurkako plataforma

## Foru Aldundiaren hipokresia salatu zuten hainbat elkartek

Larunbatean, Gipuzkoako Foru Aldundiak herritarren parte hartzeari buruz eskaini dituen ikastaro saioen bukarrera burutu zuen Donostian duen egoitza nagusian.

Hortaz baliatuz, hainbat erakunde, Errausketaren aurkako Gipuzkoako Koordinadora horien artean, egoitza nagusiaren aurrean konzentrazioa egin zuten "Hipokresia gutxiago, partehartze gehiago" lemapean.

Konzentrazioaren helburua ikastaroa kritikatu eta administrazioak estrategikotzat jotzen dituen gaietan, "azpiegituren kasuan adibidez, galdera egitea" saihesten duela salatzea zen.

Konzentrazioaz gain, elkarteek AHTari, Pasaia kanpo kaiari eta Zubietako errauste plantari buruzko informazioa eskaini zuten arkupeetan ezarri zen erakusketan. •



# ‘Sorpresa litzake finalean parte-hartzea’

■ Goiatz Irazabalek hori zioen, Donostiako Antzoki Zaharrean igandean jokatu den Gipuzkoako Euskal Kantu Txapelketako finalean zegoela jakin baino lehen

Nerea EIZAGIRRE

**G**ipuzkoako Euskal Kantu Txapelketako bigarren kanporaketa burutu zen Zumaian urriaren 31an. Honetan Goiatz Irazabal eta Lierni Arozena Lasarte-Oriako Musika Eskolako bi ikasle aurkeztu ziren Abestu zituzten bi kantuak, gainera, Musika Eskolako bi irakaslek sortuak dira. *Zoriontasunaren giltza* kantuko hitzak eta musika Aitor Uria irakasleak egindakoak dira eta *Aske* kantuen hitzak Nerea Goikoe-txearenak dira, musika Aitor Uria berarena delarik. Arrasateko kanporaketa jokatu eta Goiatzek finalerako txartela zuela jakin baino lehen, lauekin bildu ginen, haien esperientziak eta txapelketa honetaz gehiago jakiteko.



Zumaia kanporaketako saioa hasi baino lehen, Lierni, Goiatz eta Aitorrek hondartza aldera joan ziren lasaitzeko.

## Nola sortu zen txapelketan parte hartzeko ideia?

**Nerea-** Lehengo urtean, hemen zegoen irakasle bat, Lorea, aurkeztu zen txapelketa eta gara horretan nik komentatu nion Liernirekin pianoa jotzeaz gain, klaseetan abesten genduela eta hark ea zergatik ez nuen Lierni aurkezten galdetu zuen.

Orduan aztertu genuen. Kantu txapelketa bi daude, haur eta helduena. Adinean Lierni helduen mailan ez zen sartzen, 16 urte gorako txapelketa baita, eta haurren txapelketan helduena izango litzateke. Horrela utzi genuen eta aurreko kontzertu baten ostean, parte hartzea erabaki nuen. Eta Aitorri aipatu nion.

## Zenbat denbora izan duzue gutzia prestatzeko?

**Aitor-** Irailean gutzia azaldu zidan, sormeneko abestiak

zirela, hizkia ere guk egin behar genuela. Noiz aurkeztu behar ziren galdetuz urrian zela esan zidan.

**N.-** Orduan lan guztia egin behar zen, abestia sortu, hizkia jarri eta entseguak egin...

**A.-** Ahotsekin frogatu. Hasiera batean, gainera, *Aske* abestia Goiatzek kantatu behar zuen eta Liernik *Zoriontasunaren giltza*, baina tesituragatik aldatu behar izan zen.

## Nolako esperientzia izan zen txapelketan parte-hartzea?

**Goiatz-** Urduritasuna, etab. Txistulari txapelketetan ere berdina da. Baina, oraingoan, Liernirekin egon nintzen eta egoeran berdinean zegoenez ba laguntzen ginen. Baina entsaioekin alderatuta, ongi ateratu zela uste dut. Ondo pasa nuen.

**Lierni-** Esperientzia oso polita izan da eta gustura nago egin nuenarekin. Uste baino hobeto.

Gainera, bi minutuak motzak egin zitzaizkidan.

## Nolako maila ikusi zenuten? Eta abestiei dagokionez?

**L.-** Denetarik zegoen, batzuk ahots politak zituzten baina abestia ez zen sormenezkoa. Beraz, txapelketan parte hartzeko ez zen oso aproposa.

**N.-** Alde horretatik, guk abesti oso zailak aurkeztu genituen.

**A.-** Nik ez nuen zailtasunean pentsatu. Nik kezka gehiago nuen abeslariak norbere egitearekin eta gustuko izatearekin. Baina kanporaketatik irten ginen eskolako beste irakasle batek esan zuen gure abestiak zailak zirela.

## Abeslariak Aitorren laguntza izan zuten pianoarekin ohol-tza gainean. Baina herritik joan al zen beste norbait animatzera?

**N.-** Bai, kuadrilla, ikasle helduak, irakasleak... Lasarte-Oriako jendea ugari egon zen bertan. Inplikazio handia egon zen.

## Eta finalerako aukerarik ikusten al duzue?

**N.-** Guk Zumaia kanporaketako erreferentzia dugu bakarrik, beraz ez dakigu beste bi saioetan nolako abestiak dauden. Zaila da finalera

iristea, bakarlariak, bikoteak eta taldeak egongo baitira.

**G.-** Lehenengo aldia da goazena, beste parte hartzaileetako asko behin baino gehiagotan aurkeztu dira eta badakite nolako den txapelketa.

**A.-** Baina helburua ez zen finalera iristea. Aitzaki bezala hartu genuen esperientzia berriak bizitzeko. Guretzako lehenengo aldia da hizkiak egiten ditugunak. Lierni eta Goiatzentzat ere esperientzia berria izan da txapelketan taula gainean abesteara.

**N.-** Musika eskolarentzat ere lehenengo aldia da horrelako txapelketa batean parte hartzen duena. Guretzat ikasitako praktikan jartzea eta ongi pasatzea zen garrantzitsua. Bertan parte hartzea sari bat zen.

**L.-** Hala ere, finalera iritsiko ez garela suposatzen dugu. Oso zaila da.

**G.-** Sorpresa handia izango litzake finalean egotea.

## Errepikatuko al zenukete?

**A.-** Gogoia baldin badago eta hurrengo urtean hemen jarraitzen badugu lanean, bai. Gainera, bi abesti eramango ditugu. Ze bi minutu dira abesti bat...

**G.-** Nik ere errepikatuko nuke. Ondo pasatzen da, gustatzen zaigu kantatzea eta ez da esfortzua. (Lierni ere bat dator) •

## XIII. Euskal Kantu txapelketako finala igandean

Astelehena iritsi zen albiste, Goiatz Irazabal *Zoriontasunaren giltza* abestirekin Kantu Txapelketako finalerako txartela eskuratu zuen.

Animatu nahi duzuenok, finala igandean Donostiako Antzoki Zaharrean jokatu da 18:00etatik aurrera.

Lasarte-Oriako Musika Eskolako ikasleaz gain, bederatzik bakarlari, bi bikote eta bi talde lehiatuko dira finalean eta estilo ezberdinetako abestiak entzun ahaliko dira.

Horien artean, Lorea Intxaurrendieta, Musika eskolako pianoko irakasle ohia ere egongo da *Berezia* abestiarekin.

Igandean, beraz, Euskal Kantu txapelketako Gipuzkoako ordezkaria eta, era berean, abesti originalena erabakiko dira Antzoki Zaharrean.

## Santa Zeziliako kontzertuan

Zumaiera joan ez zirenek edo finalera joan ezin dutenek, ez larritu.

Azaroaren 23an, Lasarte-Oriako Musika Eskolako Santa Zezilia musikariaren zaindariaren ohorez eskainiko den kontzertuan, beste beste, Txapelketan parte hartu duten *Zoriontasunaren giltza* eta *Aske* abestiez gozatzeko aukera izango dutela aurreratu digute. •



Nerea Goikoe, Aitor Uria, Goiatz Irazabal eta Lierni Arozena batu genituen Zumaia kanporaketaz hitz egiteko.



Asteazkenan, Bilgune Feministak Udaletxe aurrean egin zuten mobilizazioa Irisarriko erailketak salatzeko.

## Indarkeriaren aurka

Lasarte-Oriako Bilgune Feministak mugimendu feministak Euskal Herrian emakume bat erailtzen dutenerako protokoloa aurkeztu du.

Ondoan irakurri daitekeen *Emakumeak borrokan* testuan azaltzen den bezala, protokoloan erailketa bat gertatu eta 48 orduetara lurraldeko herri

ezberdinetan mobilizazioak egitea adostu zen.

Era berean, Bilguneak herriko emakumei deialdia egiten die mobilizazioetan parte hartzeko.

### Mobilizazioa

Era honetara, astelehenean Irisarriko herrixkan gertatuta-

ko indarkeria kasuaren aurrean, gizon batek bere emaztea eta amaginarreba erail zituen, lehengo asteazkenean Bilgune Feministako kideak *Beste emakume bat eraila. Indarkeria sexistari erantzun* lelopean bildu ziren Udalaren aurrean egoera salatu nahian. •

## Emakumeak borrokan

Gure herriko emakumeen egoeraz kezkatu-rik, aurtengoan ere, Lasarte Oriako Bilgune Feminista, lanean da gure eskubideen alde borrokatzeko.

Berdintasunaren dis-  
kurtsioaz bete dituzte aho eta paperak, baina azken urteetan ezer gutxi aldatu dela agerikoa dugu oraindik.

Sexu zapalkuntzaren existentzia eta ondorioak begi bistakoak dira. Erasoak eremu guztietan gertatzen dira, norberak ezberdin sentitzen baditu ere, emakume guztiok pairatzen dugun fenomeno da.

Sistema patrialkalaren adierazpide bortitzena da indarkeria eta maila eta intentsitate ezberdinetan agertzen da: irain edo begirada xume batek erailtzeraino.

Aurten Euskal Herrian

5 emakume erail dituzte. Azken bost urteetan 20tik gora. Zer geratzen da heriotza hauekin? Zer egiten da horien aurrean?

Mugimendu feministak Euskal Herrian emakume bat erailtzen dutenerako protokoloa adostua dauka. 48 orduetara mobilizazioak egiten ditu herri ezberdinetan.

Lasarte-Oriko Bilgune Feministak mobilizazio hauetara agertzeko deialdia luzatzen du udaletxe aurrean arratsaldeko 20:00etan.

Emakumeen artean elkartasun feminista indartu behar da, erasotzaileei aurre egiteko indarrak bilduz eta gure autodefentsa kolektiboa sustatuz.

Lasarte Oriako Bilgune Feminista

## Eguraldiari aurre eginez Garazira

Oinatz taldeak, Donibane Garazi aldera egin zuen azaroaren 8an, eguraldi kaxkarrak eta duda askori aurre egin ondoren. AEKko bi irakasle izan zituzten gida moduan eta hiriburuaren azalpen historiko ugari ezagutu zituzten. Bazkal ostean, Itsasu herrira hurbildu ziren hilerriko estelak eta Euskal nazioaren aldarrikapenaren harria ikustera. Erroldan pasoa eta bere kondaira ere ezagutzeko astia izan zuten eta, erosketarako tartea ere izan zuten, ganbara hustuketa azoka batekin topo egin baitzuten. •



Arg.: Begoña Bergara

### KOOPERAZIOA

## Prosalusek eskaini behar zuten hitzaldia atzeratu da

Ikusle ezagatik eta arazo teknikoak medio, Prosalu GKEak hamar urte hauetan Lasarte-Oriako Udalaren laguntzaz Perun, Mozambikene eta Bolivian egin dituen proiektuei buruzko hitzaldia bertan behera geratu zen.

Hala ere, erakundeak hitzaldia data berri batean eskainiko du. Oraindik zehaztu gabe dago noiz izango den, baina horren berri dugunean, TXINTXARRIN argitaratuko dugu. •




# ANAIAK

## JANTZI-DENDA

Kale Nagusia 25 • LASARTE-ORIA  
Tel.: 943 362386





Kiroletako agenda

**FUTBOLA**

**Larunbata 14**

**10:30ean**, Ostadar-Tolosa (Emakumezkoen KDT F-11) Michelinen.  
**12:00etan**, Ostadar-Luberri (I. Kadetea) Michelinen.  
**15:30ean**, Ostadar-Beti Ona (I. Jubenila) Michelinen.  
**17:15ean**, Ostadar-Beti Ona (Erregional Gorena) Michelinen.

**10:30ean**, Beasain-Ostadar (Infantil txikiak, txapeldunen fasea) Igartzta, Beasainen.  
**11:30ean**, Trintxerpe -Ostadar (Partehartzte infantilak) Trintxer, Trintxerpen.  
**15:30ean**, Intxaurrenondotxas Lasartearra (I. Jubenila) Matigoxotegi, Donostian.  
**15:30ean**, Danena-Texas Lasartearra (I. Erregionala) Elbarrena, Zizurkil.  
**17:30ean**, Marifo-Ostadar (Jubenilen Ohorezko Maila) Ugalde-Ventas, Irun.

**Igandea 15**

**10:30ean**, Urola-Ostadar (Infantilen Ohorezko maila) Argixao, Zumarragan.  
**12:15ean**, Hernani-Ostadar (Emakumezko Erregionala) Zubipe, Hernanin.



**FUTBOL 7**

**Larunbata 14**

**21:00etan**, Spartak de Obelix-Cafe de Gros (III Maila) Don Boscon, Pasaian

**ARETO-FUTBOLA**

**Larunbata 14**

**17:45ean**, ISU leihoak-Garetxe Lazkao (Gipuzkoako Liga, I. Maila) Kiroldegian.

**18:15ean**, Inter Euskal Sofa-Aldaz H.K. (Nazional B maila) Mons kiroldegia, Donostian.

**HERRIKO TXAPELKETA**

**Michelingo areto-futboleko gunean**

**Ostirala 6**

**20:30ean**, ISU Leihoak-Lekuona Mena

**Larunbata 14**

**09:15ean**, Ilargi-Epel  
**10:15ean**, Oria krist.-Izkiña  
**11:15ean**, Goiz Argi-Viña del Mar  
**12:15ean**, Siglo XX-Naiban  
**13:15ean**, Morrison-Okela  
**15:00etan**, Tragoxka-Izarra  
**16:00etan**, Mingallon-Ainhoa  
**17:00etan**, Obelix-Danena

**Igandea 15**

**10:00etan**, Jalai-IOB H.K.  
**11:00etan**, Buenetxea-Biyona

**SASKIBALOIA**

**Igandea 15**

**12:00etan**, Cafes Aitona-Jalai (Gizonezko seniorrak) Paco Yoldi Kiroldegia, Donostian.



**PILOTA**

**Ostirala 13**

**20:00etan**, Lapke-Intza (Eskuz binaka I. Seniorra) Lazkao.

**Larunbata 14**

**16:00etan**, Intza 2-Euskal Giroa (Eskuz banaka infantila 2. Urtea) Michelinen.  
**16:00etan**, Intza 5-Oiarpe 2 (Eskuz banaka infantila 2. Urtea) Michelinen.  
**16:00etan**, Intza 3-Oiarpe 3 (Eskuz banaka infantila 2. Urtea) Urnietan.

**16:00etan**, Intza 6-Urnieta 4 (Eskuz banaka infantila 2. Urtea) Urnietan.

**16:00etan**, Intza 1-Hernani 1 (Eskuz banaka infantila 2. Urtea) Urnietan.

**16:00etan**, Intza 4-Urnieta 3 (Eskuz banaka infantila 2. Urtea) Urnietan.

**17:00etan**, Intxurre 1-Intza 2 (Eskuz banaka alebinak 2. Urtea) Villabonan.

**17:00etan**, Behar Zana 2-Intza 3 (Eskuz banaka alebinak 2. Urtea) Villabonan.

**17:30ean**, Intxurre 2-Intza 1 (Eskuz banaka alebinak 2. Urtea) Arrate, Andoainen.

**ATLETISMOA**

**Larunbata 14**

**10:30ean**, Landaberri- (Partaidetza Mugabeko probak) Anoetako belodromoan.

# Ostadarreko Infantil txikia txapeldunen fasean



gorri eta Javier Olaizolak zuzentzen dute Txapeldunen fasean sartu den Ostadarreko Infantil Txikian taldea.

**TXINTXARRI**

**Txapeldunen fasea hasi zuen lehenengo astean Ostadar K.F.ko infantil txikian taldeak. Lehenengo fasean, taldeko bigarren izatea lortu zuten bost garaipenei esker. Jose Manuel Loiarde, Gorri, entrenatzailearekin hitz egin dugu taldea nola dagoen jakiteko.**

Lehenengo fase motza jokatu du Ostadarreko taldeak, itzuli bakarrera zazpi partida.

Infantilen entrenatzaileak, Gorri azaldu digunez, "espero baino hobeto igaro dugu lehenengo fasea. Mutilak langileak dira eta ongi egin dute."

Izan ere, etxeko bezala jokatu partidatan garai ezina agertu ziren lasarteoriata-

rrak, lau partida irabazita. Kanpoko bezala, ordea, bat irabazi eta bi galdu zituzten, horietako bat, sailkapeneko lehenengoa izango zen Vasconiaren aurka.

Eta honi buruz hitz egin digu infantil txikian entrenatzaileak, "taldean Vasconia izan ezik, beste guztiak maila parekoa genuen."

**Txapeldunen fasea**

Bere taldeko bigarren bukatu zuten infantil txikiak eta talde bakoitzako lau lehenak sailkatzaren zirenez, txapeldunen faserako txartela eskuratu zuen.

"Gogorra izango da. Gipuzkoa mailako talde hobereenen aurka jokatu dugu, hala nola, Sanse," azaldu digu entrenatzaileak.

Eta horrek, lehenengo astean Txapeldunen faseko jardunaldian jokatu partidan du isla.

Ostadarreko mutilek bana berdindu zuten Lengokoaren aurka. "Justu ibili ginen. Jokalari gutxi genituen gripea dela eta. Baina, hala ere, berdinke-ta lortu genuen," azaldu digu.

Txapelketako fase berria hasi besterik ez da egin eta mutikoak oso animatuak eta ikasteke gogoekin daudela aipatu du Gorrik.

"Taldea polita dugu eta azkar ulertzen dituzte Javier Olaizolak ematen dizkien argibide teknikoak. Hala ere, helburua haiek ongi pasatzea eta futboleko jolastea dira," esan du eta horretarako hogoita bat jardunaldi dituzte oraindik. •

## Jalai taberna sailkapeneko lehen postuan lurraldeko saskibaloia txapelketan

Joan den larunbatean jokatu-tako partida irabazi ondoren, gizonezkoen Jalai Taberna saskibaloia taldea lehen postura igo da sailkapenean.

Lasarteatarrak 58-57 gailendu ziren Intxaurrenondoko Inter B taldearen aurka.

Nahiz eta partida txarra burutu, gure herritarrek gehiago izan ziren.

Era honetara, aurtun galtzea zer den ez dakite. Hiru partida jokatu dituzte eta hirurak garaitu dituzten beren taldeko buru dira.

Saskiratzaileak: Txixare (2 pt), Gorka Vergara (8 pt), Pedro (11 pt), Txema (15 pt) eta Sito (8 pt) hasierako bostekoa; Ruben (12 pt) eta Molekulax (2 pt). •



Jalai saskibaloia taldeak ez du oraingoz partidarik galdu. Arg.:Txema Valles

Egunero

**Erakusketa**

SAHARAK EMAKUME IZENA DU argazki erakusketa Mundu bat Gobernuz Kanpoko Erakundearen eskutik. Jalgi kafe-antzikian, egun osoan.

**Erakusketa**

EUSKAL FONDOAREN eskutik Amets bat izeneko erakusketa. Saharako argazkiak ikusi daitezke bertan. Manuel Lekuona Kulturetxean, 18:00etatik 21:00etara.

Ostirala, 13

**Antzerkia**


THE... CON MUJERES antzezlanaren Donostiako Teatro Estudio taldearen eskutik. Sarrera, doan. Manuel Lekuona Kulturetxean, 19:30ean. GAZTELANIAZ

**Bakarrizketa**

Andatza plazako Naiban tabernako BAKARRIZKETA SAIOEN emanaldi berria. Sarrera doan. Naiban tabernan, 23:30ean, GAZTELANIAZ.

**Kontzertua**

TRANSISTORES 50 taldearen emanaldia. Talde honek Donostia hiria lehiaketan parte hartutakoa da. Abend kafe-antzikian, gaueko 12etan.



**Rocksteady Jalgin**

Jamaikako musika ipiniko du DJak 1964an grabatutako "This is Ska" bideo emanaldiaren ondoren.

GAUR, OSTIRALA  
23:00ETAN  
JALGI KAFE-ANTZOKIAN

Larunbata, 14

**Kontzertua**

LEHENENGO URTEURRENA ospatzeko *Apurtu, Kaos eta Kooperativ* taldeek emanaldia eskainiko dute. Sustrai tabernan, 19:00etan.

Igandea, 15

**Zinea**

KIKA SUPERBRUJA Y EL LIBRO DE LOS HECHIZOS haurrentzako filma. Sarrera, 3,15 euro. Kulturetxean, 17:00etan, GAZTELANIAZ.

Asteartea, 17

**Ipuin-kontalaria**

KORUKO ZURUTUZA ipuin-kontalariaren Ipuinaren ordua saioa 7, 8, eta 9 urteko haurrentzat. Kulturetxeko haurren liburutegian, 18:00etan, EUSKARAZ.

Asteazkena, 18

**Hitzaldia**

GIZAKIEN ARTEKO ERLAZIOA hitzaldia Helena San Pedoren eskutik, Nola hezi gure sema-alabak hitzaldi zikloaren barruan. Kulturetxean, 18:00etan.

**Diaporama**

TXINA BIZIKLETAZ diaporama eskainiko du Aitzol Etxegoienek. Jalgin, 21:30ean, EUSKARAZ.

Osteguna, 19

**Zinea**

AL OTRO LADO filma ikusgai Okendo Zinema Taldearen eskutik. Sarrera, 4,15 euro. Kulturetxean, 21:30ean. GAZTELANIAZ

Ostirala, 20

**Kontzertua**

Alegiko TXINTXARRI abesbatza-aren emanaldia Danok Kideek antolatutako V. Musika Topaketaren barruan. Brigitarren komentuan, 19:30ean.

**Kontzertua**

R.S. FACTOR (Jazz) taldearen emanaldia Udalak eta Xpression taldearen hitzarmenaren barruan. Manuel Lekuona Kulturetxeko kafetegian, 20:00etan.

**Aurkezpena**


VIII. MULTIMUSIKALAREN aurkezpena egingo da eta ondoren, 21:30ak aldera, *Petti eta Arramazka* taldeen emanaldiak entzun ahal izango dira. Jalgi kafe-antzikian, 21:00etan.

**Kontzertua**

THE HOLLY'S taldeak emanaldi eskainiko du Abend kafe-antzikian, gaueko 12etatik aurrera.

**Liburutegiko ordutegia**

Astelehenetik ostiralera  
10:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 21:00etara  
Larunbatetan, 09:30etik 13:00etara




Manuel Lekuona kulturetxea  
Geltoki kalea 18 • Tel.: 943 376181

**Esazu irratiko programazioa**

**Ostiralero programa!**  
FMko 105,5 ean izango gaituzue ostiralero 9:45etik 11:45era.

Gurekin ondo pasatuko duzuelakoan, ostiralera arte!



**Oharrak**

**Sahararen aldeko egutegia**

Euskadi-Sahararen Otsailak 27 kordinadorak egutegiak jarri ditu salgai Sahararen alde. Egutegi hauek Jalgi, Obelix eta Sustrai tabernetan egongo dira salgai 7 euroren truke. Bildutako dirua, janariaren euskal karabana antolatzeko laguntzeko bideratuko da.

**Zakurra galdu da**

Pastro aleman bat galdu da Zabaleta auzoko Hernani bidean. Dei du izena eta txipa dauka. Aurkitzen duenak dei dezala, 943 365 297.

**Burunzpe Guraso elkartearen Loteria**

Sasoeta- Zumaburu herri ikastetxeko Burunzpe Guraso Elkarteak salgai dauka dagoneko Gabonetako loteria. Eskuratzeko elkartetik pasa

daiteke asteazkenetan 15:00etatik 16:30etara.

**Batxilergo tituluak**

Lasarte-Oriako Institutuak jakin arazi nahi du 2008an bukatu zutenek, batxilergo tituluak jaso ditzaketela goizeko 9:00etatik 13:00ak bitartean. Norberak jaso behar du, bestela nortasun agiriaren fotokopiarekin jaso daiteke ere.

**Oztabideko loteria**

Oztabide auzo-elkarteak Arranbide-Oztaraneko auzotarrei jakin arazten die eguberrikako loteria salgai dagoela. 19827 zenbakia da eta 3 euroko (loteria: 2,5 euro eta emaria: 0,5 euro) loteriako partaidetzan eskatzeko aukera izango duzue. Loteriako partaidetzak Txema tabernan (Andapa kalea, "Zumaburu")

eta COVIRAN supermerkatuan (Oztaran enparantzan) erosi ahal izango dituzue.

Bide batez, gogora arazi nahi dizuegu administraritza gastuei aurre egiteko baliabide hau bakarrik daukala elkarteak.

**Haur baten zapata azaldu da**

Urriaren 25ean ospatu zen Lasarte-Oria Bai! Kroseko egunean, haur txiki baten zapata marroia azaldu zen Jalgi kafe-antzikian. 3-6 hilabeteko haurrentzako zapata da. Galdu duenak Ttakuneko bulegoan jaso dezake.

**Igerileku txikia itxia**

Haurtxoeekin antolatu diren igeriketa ikastaroak baldintza egokietan garatu daitezzen, larunbatetan, goizeko 10:30ak eta 11:00ak bitartean

igerileku txikia erabiltzaile ororentzat itxita egongo da.

**Ostadar K.F.-ko Loteria**

Ostadar Kirol Fundazioak Gabonetako Loteriako txartelak ditu salgai. Bakoitzak 2,5 euro balio ditu eta horietatik 0,50 euro elkartearentzat dira.

Interesa duenak kirol elkarteko egoitzara hurbiltzea besterik ez du, Geltoki kaleko 25. zenbakira.

**Dagokionari**

Hauxe duzu zure iritzia eta nahi duzuna adierazteko atal aproposa. Bidali edo zuzenean ekarri TXINTXARRI aldizkaria. Horretarako aukera desberdinak dituzu; telefonoz, 943 366858 zenbakira deituta, posta elektronikoz txintxarri@ttakun.com helbidera bidaliaz. Gure bulegora ekarriaz (Geltoki kalea 4).

**Oharrak jartzeko:**

Tel.: 943 366858  
txintxarri@txintxarri.info  
txintxarri@ttakun.com

# Ttakun Sariak lehenengoz Lasarte-Orian

■ Herriko erara prestatutako festa hau azaroaren 28an ospatuko da Txixtardin Beltxa jatetxean. Ospakizun afari honek 150 lagunentzat lekua eta afaloste girotua izango du

## ITXASO MORENO

Ttakun Kultur Elkarteak, ez da inoiz geldirik geratzen. Horren adibide, prestatu berri duen ekintza. Oraingoan Ttakun Sariak deritzonak antolatu ditu.

Sari hauen helburua, euskara edo euskal kulturaren munduan zerbait berezia egin dutenak errekozimentua adieraztea da. "Ttakun Sariak asmakizun bat izan dira, azken finean. Ttakunek bere bazkideekin urtean behin zita egiteko aitzaki moduan proposatu duena" adierazi dute antolatzaileek.

## Ttakunkidetzaren errealitateak

Garai batean, afariren bat egiten zuten, noizean behin bazkideek elkarren berri izateko. Egun, ez dira hainbeste egiten, eta zita hori berreskuratzeko nahiarekin "eta Ttakunkide izatearen errealitate hori berreskuratzeko otu zitzaigun ideia" gaineratu dute.

Aurreko urtean Euskararen Maratoia ospatu zen herrian, eta herritar orok izan zuen aukera gutxienez 40 ordu euskaraz bizitzeko. Baina, Maratoia lau urtez behin ospatzen denez, tarte horretan, berriro biltzeko zita antolatzea da asmoa. Idea hau aspaldian zegoen elkarrearen asmoetan eta urtea amaitu baino lehen burutuko da.

Ttakunzaleen afaria egitea helburua baldin badu ere, euskararen munduan urtean zehar zerbait espeziala egin duena omendu eta nabarmenduko da.

## Aukeraketa

Aurtengo sariduna Ttakuneko zuzendaritzak proposatu eta aukeratu badu ere, hurrengo urteetan erabaki hau bazkideei luzatuko zaie. Omendua aukeratzeko proposamenak

bidaltzeko aukera izango dute bazkideek. Proposamen guztiak bildutakoan aukeraketa sistema bat eratuko da.

## Sariduna

Sariduna eta du zertan herrikoa izan behar. Lasarte-Oriarekin nolabaiteko lotura izatea aski izango da. Arlo honetan malguak izango direla adierazi dute, ez dutela hertsiki jokatuko.

Aurten saridun bakarra egongo den arren, Ttakuneko antolakuntzatik argi utzi nahi dute "ez dela beti pertsona bakar bat sarituko, urtearen arabera, eta proposamenen arabera erabakiko da. Kolekti-



Maratoia lau urtez behin ospatzen denez, tarte horretan, berriro biltzeko zita antolatzea da Ttakunen asmoa.

bo bat suertatu daiteke saridun", beraz urte batean saritu bat, edo gehiago egon litezke, baita esparru batekoa edo bestekoa.

## Txitxardin Beltxan

Euskaldunak jale onak garestu ezin ukatu, ospakizun guztiak mahai baten inguruan egiteko ohitura dugu, eta Ttakun Sariak ere horrela ospatuko dira. Txixtardin Beltxa jatetxean izango da zita, azaroaren 28an, gaueko bederatzietan. "Menu parega-

bea eta oso prezio onean prestatu digute".

150 pertsonentzako lekua dago, beraz, tiketak agortu baino lehen zurearekin egiteko aukerarik ez galdu. Tike horiek eskuratzeko, Ttakuneko egoitzatik pasa behar da.

Helduentzako menua 30 eurotan eta umeena (16 urte arte) 10 eurotan eskuragarri izango duzue. Sarrerak jada salgai daude bazkideentzat, eta azaroaren 25era arte izango dute epea irekiti.

## Menua

Helduek: foie, porru eta gantz bez betetako hojaldrea, txangurroz betetako krepa, zapoa edo azpizuna aukeran, tarta eta izozkia izango dute dastatzeko. Edaria, kafea eta kopa prezioaren barne daude.

Haurrek, urdaiazpikoa, askotariko frijituak, solomoa patata frijitu eta piperrekin eta izozkia izango dute menu gisa. Edaria ere prezioan sartzen delarik.

"Afari ederra, dibertigarria eta afaloste ezin hobea garrantzitzen ditugu" diote antolatzaileek. Afari hau ez da Ttakuneko bazkideei soilik mugatuko, lasarteoriatar guztiak nahi dituzte gonbitea

"Ttakunen lan esparrua herria da, eta herriak berak sostengatzen gaitu" dio Mailuk. Ttakuneko bazkide ez direnentzat sarrerak 16tik 25era bitartean izango dituzte salgai.

## Lasarte-Oriako estiloa

Lasarte-Oriak badu gauzak ospatzeko estilo berezia, eta horren arabera antolatuko da Ttakun Sarien ingurukoa.

"Herrian artista asko dago, lotsagabe asko, baita taulatua asko gustatzen zaien horietakoak. Maratoian sortzen den afaloste giroa sortzea dugu asmoa eta lortuko dugula uste dugu" diote Ttakuneko arduradunek.

Afari paregabea dastatu eta gero, show pixka bat, eta nola ez, gauzak ezin hobeto amaitzeko, dantzaldia bertaratutako guztientzat. Aukera ederra Lasarte-Oriako herritarrek, Ttakuneko bazkide direnak eta ez direnak, denak elkarrekin, ondo pasatzeko eta euskaraz eta euskal kulturak eskaintzen dituenaz disfrutatzen.

## Omendu erakargarria

Ttakun Sarien lehenengo omendua erakargarritasun handia du herrian. "Lehenengo urtea izanik apustu indartsua egin dugu, jende askok ezagutzen duen pertsona eta herrian estimatua" dio Mailuk. Sarien lehenengo edizio honetarako "ezbairik gabe saria merezi duen pertsona erabaki dugu" gaineratzen du.

Hurrengo astean saridunaren izenaren hertsitasuna ez dute haren bertan, TXINTXARRI aldizkarian. Horren bitartean buruari eragiteko gonbitea luzatzen dizuegu, ea nork irabazten dituen apustuak! •

“ Ttakun Sarien helburua, euskara edo euskal kulturaren munduan zerbait berezia egin dutenak omentzea da

“ Afaria eta afalosteko showa zurratzen dugu. Lasarte-Orian artista eta lotsagabe asko dago, baita taulatua aski gogoko dutenak ere



Badatoz Ttakun Sariak, dibertsiorako prest? Ez galdu aukera, eta erosi zure tiketa Ttakunen.